



LG P500-aren Erabiltzailearen eskuliburua

Informazio orokorra

<LGren bezeroarentzako informazio-zentroa> 902-500-234

* Ziurtatu zenbakia zuzena dela, deitu aurretik.

Zorionak LGren LG-P500 telefono mugikorra erosteagatik. Modelo honek diseinu berritzailea eta konpaktua du, eta bateragarria da komunikazio mugikor digitaletako teknologiarik aurreratuenarekin.



Nola bota gailu elektriko eta elektroniko zaharrak

- 1 Ezabatutako zaborrontziaren irudia duten produktuek 2002/96/EE Direktiba bete behar dute.
- 2 Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu aruntan bidez, eta gobemuak edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eramán behar dira.
- 3 Gailu erabilezina behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihestu daitezke.
- 4 Gailu zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jami harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.

CE 0168 !



Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



LG-P500aren erabiltzailearen eskuliburua



Eskuliburu honek telefonoa erabiltzen hasteko laguntza emango dizu.

Informazio gehiago nahi baduzu, joan www.lg.com gunera.

- Eskuliburu honen zatiren bat agian ezin zaio aplikatu telefonoari; hori telefonoaren softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.
- Telefono hau ez da pertsona itsuentzat gomendagarria, teklatura ukipen-pantailan baitu.
- Copyright ©2010 LG Electronics, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta. LG eta LGren logotipoa LG Group-en eta horri lotutako erakundeen marka komertzial erregistratuak dira. Gainerako marka komertzialak dagozkien jabeenak dira.
- Google, Inc.-en marka komertzialak dira Google™, Google Maps®, Google Mail®, YouTube®, Google Talk® eta Android Market®.



Edukiak

Ohar garrantzitsua.....	5	Google-ko kontu bat konfiguraztea.....	31
Telefonoa ezagutzea	16	Google-ko kontu bat sortzea.....	31
SIM txartela eta bateria sartzea.....	18	Google-ko kontuarekin saioa hastea.....	31
Memoria-txartela instalatzea	20	Deiak	33
Memoria-txartela formateatzea.....	21	Deitzea.....	33
Hasierako pantaila.....	23	Kontaktuei deitzea.....	33
Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak.....	23	Dei bati erantzutea edo ez onartzea.....	33
Hurbiltasun-sentsorea.....	23	Deiaren bolumena doitzea.....	34
Telefonoa blokeatzea.....	24	Bigarren deia egitea.....	34
Pantaila desblokeatzea.....	24	Deien erregistroak ikustea	
Hasiera	25	Deien doikuntzak.....	35
Widget-ak gehitzea hasierako pantailari	26	Contactos	36
Duela gutxi erabilitako aplikazioetara itzultzea	27	Kontaktuak bilatzea.....	36
Pantailako teklatura.....	29	Kontaktu berri bat gehitzea.....	36
Testua idaztea.....	29	Gogoko kontaktuak	36
Abc modua.....	30	Mezuak/Posta elektronikoa.....	38
123 modua.....	30	Mezuak	38
Letra azentudunak idaztea.....	30	Mezuak bidaltzea	38
Adibidea.....	30	Izenaren arabera antolatzea.....	39
		Aurpegierak erabiltzea.....	39
		Mezuen doikuntzak aldatzea.....	39
		Posta elektronikoa eta Cuentas pantaila irekitzea	39

Mezuak irakurtzea	41	Konfigurazio aurreratua	
Mezuei erantzun	41	erabiltzea.....	55
Nabarmendutako mezuak	42	Gordetako bideoak ikustea	56
Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea.....	42	Zure argazkiak eta bideoak.....	57
Kontuko karpetekin lan egitea.....	43	Bolumena doitzea bideo bat ikustean	57
Posta elektronikoko kontuak gehitzea eta editatzea.....	44	Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa.....	57
Sare sozialak.....	44	Multimedia.....	58
Telefonoari zure kontua gehitzea.....	45	Bistaratze-eredua	58
Zure egoera ikustea eta eguneratzea.....	45	Ikuspegi kronologikoa.....	58
Telefonotik kontuak ezabatzea.....	46	Mis imágenes-en aukeramenua.....	58
Kamera.....	47	Argazki bat bidaltzea	58
Bisorea ezagutzea.....	47	Bideo bat bidaltzea.....	59
Fokatze-modua erabiltzea.....	48	Irudi bat erabiltzea.....	59
Argazkiak azkar ateratzea.....	48	Diapositiba-aurkezpen bat sortzea.....	59
Argazkia atera ondoren.....	49	Argazkiaren datuak.....	60
Konfigurazio aurreratua erabiltzea	49	Fitxategiak transferitzea USB biltegitratze masiborako gailuen bidez.....	60
Gordetako argazkiak ikustea	51	Musika.....	60
Bideokamera	53	Abesti bat erreproduzitzea.....	61
Bisorea ezagutzea.....	53	Irratia erabiltzea.....	61
Bideo bat azkar egitea	54	Irrati-kateak bilatzea.....	62
Bideo bat grabatu ondoren.....	54	Kateak berrezartzea	62
		Irratia entzutea	63

Edukiak

Google-ren aplikazioak.....	64	Aplikazioak.....	73
Google Maps®	64	Kontuak doitzeta eta	
Market®	65	sinkronizatzea	74
Google Mail®	65	Pribatutasuna	74
Google Talk®	66	Biltegitratzea	74
Tresnak	67	Bilaketa	74
Alarma bat ezartzea.....	67	Data eta ordua	74
Kalkulagailua erabiltzea.....	67	Hizkuntza eta herrialdea	74
Egutegiari gertaerak gehitzea.....	67	Irisgarritasuna	75
Egutegiaren ikuspegia		Ahots-sintesia	75
aldatzea.....	68	Telefonoari buruz	75
ThinkFree Office.....	68	WiFi	76
Ahots-grabagailua	69	Softwarea eguneratzea	78
Soinua edo ahotsa grabatzea.....	69	Telefonoaren softwarea	
Ahots-grabazioa bidaltzea	69	eguneratzea	78
Sarea.....	70	Divx Mobile DivX	78
Nabigatzailea	70	Datu teknikoak	79
Aukerak erabiltzea.....	70	Osagarriak	80
Gogokoak gehitzea eta haietara		Irakurri ezazu telefonoa erabiltzen	
sartzea.....	71	 hasi aurretik	81
Web nabigatzailearen		Arazoak konpontzea	85
doikuntzak aldatzea	71	Segurtasunez eta	
Doikuntzak.....	72	 eraginkortasunez erabiltzeko	
Haririk gabeko konexioak	72	 jarraibideak	88
Soinua	72		
Pantaila.....	72		
Kokapena eta segurtasuna.....	72		

Ohar garrantzitsua

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuari deitu edo telefonoa zerbitzu teknikoari eraman aurretik, egiaztatu zure telefonoak dituen arazoak atal honetan deskribatzen diren.

1. Telefonoaren memoria

Telefono mugikorraren memorian erabilgarri dagoen espazioa % 10a baino txikiagoa denean, telefonoak ezin du mezu berririk jaso. Telefonoaren memoria egiaztatu eta datu batzuk, aplikazioak edo mezuak, ezabatu behar dira, memorian espazio gehiago izateko.

Aplikazioa kudeatzeko:

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**.
- 2 Aplikazioak bistaratzean, mugitu eta hautatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa.

- 3 Sakatu **Desinstalar** eta Aceptar nahi duzun aplikazioa desinstalatzeko.

2. Bateriaren iraupena optimizatzea

Karga artean bateriak duen iraupena handitzeko, bigarren mailan etengabe exekutatuta izan behar ez dituzun funtzioak deskonekta ditzakezu. Halaber, Aplikazioek eta sistemaren baliabideek bateriaren energia nola kontsumitzen duten gainbegira dezakezu.

Bateriak gehiago iraun dezan:

- Deskonektatu erabiltzen ez dituzun irrati-komunikazioak. Ez bazara WiFaren, Bluetooth-aren edo GPSaren funtzioak erabiltzen ari, itzal itzazu.
- Murriztu pantailaren distira eta ezar ezazu pantailaren itxarotedenbora laburragoa.

Ohar garrantzitsua

- Desaktibatu Google Mail®-ren, egutegiaren, kontaktuen eta beste aplikazioen sinkronizazioa.
- Deskargatutako zenbait aplikaziok bateriaren iraupena gutxitu dezakete.

Bateriaren karga-maila egiaztatzeko:

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Acerca del teléfono > Estado**.
- 2 Pantailaren goiko aldean ikus daitezke bateriaren egoera (kargatzen edo deskargatzen) eta maila (kargaren ehunekoa).

Bateria zerk erabiltzen duen gainbegiratzeko eta kontrolatzeko:

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Acerca del teléfono > Uso de la batería**.

- 2 Pantailaren goiko aldean ikus daiteke bateriaren erabilera-denbora. Elikatze-iturrira azken aldiz konektatu zenetik igaro den denbora adierazten du irudiak, eta, elikatze-iturri bati konektatuta badago, berriz, bateriarekin funtzionatzen egon den denbora. Pantailaren erdialdean agertzen da bateria erabiltzen duten aplikazioak edo zerbitzuak, gehien erabiltzen duenetik gutxienera antolatuta.

3. Iturri irekiko sistema eragilea instalatzea

Telefonoan, fabrikatzaileak eman duen sistema eragilea erabili beharrean, iturri irekiko sistema eragilea instalatzen baduzu, baliteke telefonoak ongi ez funtzionatzea.



ADI: fabrikatzaileak eman duen sistema eragilearen ordeztu, beste bat instalatzen eta erabiltzen baduzu, bermearen estaldurarik gabe geratuko da telefonoa.



ADI: telefonoa eta datu pertsonalak babesteko, aplikazioak konfiantzazko iturrietatik soilik deskargatu; esaterako, Android Market-etik. Aplikazioen bat zuzen instalatuta ez badago, baliteke telefonoak ongi ez funtzionatzea edo akats larriren bat izatea. Aplikazio horiek eta horien datu eta doikuntza guztiak desinstalatu beharko dituzu telefonotik.

4. Desblokeatze-eredua erabiltzea

Telefonoa babesteko balio duen desblokeatze-eredua ezartzeko da. Pantailaren desblokeatze-eredua sortzen lagunduko dizuten pantailak irekitzen ditu.



ADI: blokeatzeko eredua erabiltzen denentzat zenbait puntu izan behar dira kontuan. Garrantzitsua da ezarri den desblokeatze-eredua gogoratzea. Eredu okerra 5 aldiz erabiliz gero, ezingo duzu telefonora sartu. Bost aukera dituzu desblokeatze-eredua, PINa edo pasahitza sartzeko. Bost aukerak agortu badituzu, 30 segundo itxaron ondoren saia zaitzke berriro.

Ohar garrantzitsua

Ez baduzu desblokeatze-eredua, PINa edo pasahitza gogoraten:

Google-ko kontuan izena ematean, bost aukera dituzu pasahitza sartzeko. Bestela, sakatu **recordar contraseña** botoia.

Ondoren, Google-ko zure kontuan saioa hasteko eskatuko zaizu, telefonoa desblokeatzeko.

Ez baduzu Google-ko konturik sortu telefonoan edo ahaztu egin bazaizu, fabrikazioan ezarritako doikuntzak berrezarri beharko dituzu.

Kontuz: fabrikazioan ezarritako doikuntzak berrezartzen badituzu, erabiltzailearen aplikazio eta datu guztiak ezabatuko dira. Fabrikazioan ezarritako doikuntzak berrezarri aurretik, egin datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia.

- 1 Itzali telefonoa.
- 2 Sakatu 10 segundoan bolumena jaisteko tekla + Atzera tekla + pizteko/blokeatzeko tekla.

- 3 Telefonoa pizten denean, askatu tekla horiek.

5. Modu segurua erabiltzea eta erabat berrabiaraztea

Modu segurua erabiltzea

* **Telefonoaren funtzionamendu okerra eten eta berreskuratzeko**

- 1 Itzali telefonoa eta berrabiarazi. Telefonoa pizten den bitartean, luze sakatu menuaren tekla, Android-en logotipoa agertzen den bitartean. Telefonoa pantaila nagusiraino martxan jarriko da eta "Modo seguro" azalduko da behean ezkerreko izkinan.
- 2 Hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones**, hautatu aplikazioa, eta, gero, hautatu **Desinstalar** ikonoa.

- 3 Aplikazioa desinstalatu ondoren, itzali eta berrabiarazi telefonoa.
- * **Doikuntza guztiak berriro ezartzeko aukera erabiltzea (fabrikazioan zeuden doikuntzak berrezartzea).**
- Ez badira jatorrizko doikuntzak ezartzen, erabili **doikuntza guztiak berriro ezartzeko aukera**, telefonoa hasieratzeko. Telefonoa piztean bezeroak pizteko tekla, hasierako tekla eta bolumena jaisteko tekla luze sakatzen badira (10 segundoan), telefonoa piztu egingo da eta fabrikazioan ezarritako doikuntzak berrezarriko dira berehala. Kontuan izan **berrabiarazte osoa** egitean telefonoko datu eta aplikazio guztiak ezabatuko direla eta ezingo direla berreskuratu.



ADI

Erabat berrabiarazten baduzu, erabiltzailearen aplikazio eta datu guztiak ezabatuko dira. Gogoratu datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egin behar dela, telefonoa **erabat berrezarri** aurretik.

6. WiFi sareetara konektatzea

Telefonoaren WiFi konexioa erabiltzeko, ezinbestekoa da haririk gabeko sarbide-puntu baten bidez egitea (ingelesez, "AP"). Sarbide-puntu batzuk irekita daude, eta horietara konektatzea besterik ez duzu egin behar. Beste batzuk ezkutatuta daude edo bestelako segurtasun-funtzioak dituzte. Halakoetan, telefonoa konfiguratu egin behar da puntu horietara konektatu ahal izateko.

Deskonektatu WiFi konexioa erabiltzen ari ez zarenean; hala, bateriak gehiago iraungo du.

Ohar garrantzitsua

WiFi konexioa aktibatu eta WiFi sare bati konektatzeko

- 1 Hasierako pantailan, ireki Aplicaciones fitxa, eta hautatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas > Configuración de WiFi**.
- 2 Ukitu **WiFi**, funtzio hori pizteko eta eskura dauden WiFi sareak bilatzen hasteko.
 - Erabilgarri dauden WiFi sareen zerrenda bistaraten da. Sare seguruak giltzarrapoi-konoarekin bistaratuko dira.
- 3 Ukitu sare bat horri konektatzeko.
 - Sarea irekia bada, eskatuko zaizu sare horri konektatzea nahi duzula baieztatzea **Establecer conexión** ukituta.
 - Sarea babestuta badago, eskatuko zaizu pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartzea. (Sare-administratzaileari eskatu xehetasunak).

- 4 Egoera-barran ikusten dira WiFi egoera adierazten duten ikonoak.

7. MicroSD txartela erabiltzea

Irudiak, musika- eta bideo-fitxategiak bezala, kanpo-memoria batean soilik gorde daitezke. Telefonoan integratutako kamera erabiltzen hasi aurretik, ezinbestekoa da telefonoan microSD memoria-txartela txertatzea. Memoria-txartelik txertatzen ez baduzu, ezingo dituzu gorde egindako argazkiak edo bideoak.



ADI:

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke. Memoria-txartela era seguruan ateratzeko, hautatu **hasierako pantaila > Ajustes > Almacenamiento > Desactivar tarjeta SD.**

8. Aplikazioak irekitzea eta aldatzea

Android-ekin erraza da lan bat baino gehiago batera egitea; izan ere, irekitako aplikazioek exekutatzen jarraitzen dute beste aplikazio bat irekitzean. Ez dago aplikazio batetik atera beharrik beste bat irekitzeko. Irekita dauden hainbat aplikazio erabil daitezke aldi berean. Android-ek aplikazio bakoitza kudeatzen du, eta bakoitza behar denean gelditzen edo abiarazten du; hala,

aktibo ez dauden aplikazioek ez dute baliabiderik kontsumituko beharrik ez dagoenean.

Erabiltzen ari den aplikazioa geldiarazteko

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa, eta hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Administrar aplicaciones.**
- 2 Joan nahi den aplikaziora, eta ukitu **Forzar detención**, erabiltzeari uzteko.

IRADOKIZUNA: duela gutxi erabilitako aplikazioetara itzultzea

- Sakatu luze hasierako tekla, eta duela gutxi erabilitako aplikazioak erakusten dituen pantaila bat agertuko da.

Ohar garrantzitsua

9. LG PC Suite kopiatzea SD txarteletik

LG PC Suite IV programak datuen komunikaziorako USB kable baten bidez telefono mugikorra ordenagailura konektatzen du, telefono mugikorraren funtzioak ordenagailuan erabili ahal izateko.

Hauek dira LG PC Suite IV-ren funtzio nagusiak:

- Telefonoan nahi duzun datuak sortzea, editatzea eta borratzea
 - Ordenagailu bateko eta telefono bateko datuak sinkronizatzea (kontaktuak, egutegia, testu-mezuak (SMS), gogokoenak, deien egunkaria)
 - Multimedia-fitxategiak transferitzea (argazkiak, bideoak, musika) ordenagailu baten eta telefono baten artean, batetik bestera arrastatu eta askatuta
 - Mezuak telefono batetik ordenagailu batera transferitzea
 - Telefonoa modem gisa erabiltzea
- S/ W eguneratzea, daturik galdu gabe

LG PC Suite microSD memoria-txartel batetik instalatzea

- 1 Sartu microSD txartela telefonoan (Horren aurretik ordenagailuan sartu behar da).
- 2 USB datu-kablea konektatu aurretik, egiaztatu biltegitatze masiboaren modua aktibatuta dagoela telefonoan. (Aplikazioen menuan, hautatu **Ajustes > Almacenamiento** eta aktibatu biltegitatze masiboa.)
- 3 Konektatu telefonoa ordenagailura USB datu-kablearen bidez.
- 4 Ireki egoera-barraren menua (USBaren ikonoa agertzen da hor).

- Hautatu conectado por USB, eta aktibatu almacenamiento masivo.
 - Aukera izango duzu fitxategiak ordenagailuan ikusteko eta transferitzeko.
- 5**
- Kopiatu LGPCSuiteIV karpeta zure ordenagailuko biltegitarte masiboan.
 - LGInstaller.exe ‘
 - Exekutatu fitxategia ordenagailuan, eta jarraitu argibideei.

*LG PC Suite IV-ren instalazioa amaitzean, desgaitu biltegitarte masiboko modua LF PC Suite IV exekutatuzeko.

OHARRA: ez ezabatu memoria-txartelean instalatutako fitxategi edo programarik; izan ere, telefonoan aurrez instalatutako aplikazioa kaltetu dezake.

10. Telefonoa ordenagailu batera USB bidez konektatzea

OHARRA: USB kablearen bidez telefonoa ordenagailuarekin sinkronizatzeko, LG PC Suite programa instalatu behar duzu ordenagailuan. LGren webgunean (www.lg.com) deskargatu dezakezu programa hori. Joan www.lg.com gunere, eta aukeratu zure eskualdea, herrialdea eta hizkuntza. LGren webgunean duzu informazio gehiago.

PC Suite SD txartelean integratua dagoenez, ordenagailuan kopiatu besterik ez duzu egin behar.

LG-P500ek ez ditu hauek onartzen:

- Bluetooth bidez konektatzea ordenagailura
- LGren haririk gabeko sinkronizazioa (sareko sinkronizazioa, egin klik eskuineko botoiaz)
- OSP (telefonoa pantailan)
- Egin gabeko zereginak egutegian

Ohar garrantzitsua

- Oharrak
- Java aplikazioak

PC Suite IV-ren erabiltzailearentzako gida laguntza-menuan agertuko da PC Suite IV instalatutakoan.

- 1** Erabili USB kablea telefonoarekin, ordenagailuaren USB ataka batera konektatzeko. USB kablea konektatuta dagoela jakinaraziko dizun oharra jasoko duzu.
- 2** Ireki iragarlea, eta ukitu Conectado por USB.
- 3** Ukitu Cargar, telefonoaren microSD txartelaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak mugitzea nahi duzula baieztatzeko.

Telefonoa USB biltegitratze-gailu gisa konektatuta dagoenean, jakinarazpena jasoko duzu. Telefonoaren microSD txartela disko-unitate gisa agertuko da ordenagailuan. Une horretan, fitxategiak kopiatu ditzakezu microSD txarteletik edo alderantziz.

11. Desblokeatu pantaila datu-konexioa erabiltzean.

Pantaila ilundu egingo da datu-konexioa erabiltzen ari den bitartean denbora-tarte batez ukitzen ez bada. LCD pantaila berriz pizteko, nahikoa da pantaila ukitzea.

Oharra: PC Suite IV desinstalatzean, USB eta Bluetooth kontrolagailuak ez dira automatikoki ezabatzen. Beraz, eskuz desinstalatu behar dira.

Iradokizuna: telefonoaren microSD txartela berriz erabiltzeko, iragarlea ireki behar da nahitaez, eta “Desactivar almacenamiento USB” ukitu.

Denbora-tarte horretan ezingo duzu telefonotik microSD txartelera sartu. Beraz, ezingo dituzu erabili microSD txartelean oinarritzen diren aplikazioak, hala nola kamera, galeria eta musika.

Telefonoa ordenagailutik deskonektatzeko, jarraitu USB gailuak behar bezala deskonektatzeko eta txarteleko informazioa galtzea saihesteko ordenagailuak emango dizkizun jarraibideei.

- 1 Deskonektatu modu seguruan USB gailua ordenagailutik.
- 2 Ireki biltegitratzeko postontzia, eta ukitu **De almacenamiento masivo USB**.
- 3 Agertzen den elkarrizketakoadroan, ukitu **Desactivar**.

12. Eutsi telefonoari zuzen.

Eutsi telefonoari telefono arruntei bezala.

Deiak egitean edo jasotzean edo datuak bidaltzean edo jasotzean, saiatu telefonoaren beheko zatiari ez eusten, han baitago antena. Horrek eragina izan dezake deiaren kalitatean.

13. Pantaila erantzuten ez duela geratzen bada

Telefonoak ez badu erantzuten erabiltzaileak datuak sartzean, edo pantaila aldatzen ez dela geratzen bada:

Kendu bateria, sartu berriro, eta piztu telefonoa. Hala ere ez badabil, jar zaitez harremanetan zerbitzuen zentroarekin.


14. Ez konektatu telefonoa ordenagailua pizten edo itzaltzen duzun bitartean.

Ziurtatu telefonoa eta ordenagailua datu-kablearen bidez deskonektatzen dituzula; bestela, erroreak eragin ditzakezu ordenagailuan.

Telefonoa ezagutzea

Telefonoa pizteko, sakatu pizteko tekla 3 segundoz. Telefonoa itzaltzeko, sakatu pizteko tekla 3 segundoz eta ukitu Apagar.



 **ADI:** telefonoaren gainean objektu astunen bat jarri gero edo haren hainean eseriz gero, kaltetuak gerta daitezke LCD pantaila eta ukipen-pantailaren funtzioa. Ez estali LCDaren hurbiltasun-sentsorearen geruza. Sentsorearen funtzionamendua kaltetu daiteke.

Iradokizuna: sakatu Menu tekla aplikazio bat ukitzen duzun bakoitzean, dauden aukerak ikusteko.

Iradokizuna: LG-P500ek ez du onartzen bideo-deien funtzioa.

Iradokizuna: LG-P500ek erroreak baditu erabiltzen duzunean edo ezin baduzu piztu, kendu bateria, sartu berriz, eta, 5 segundo igarotakoan, piztu berriz.

Entzungailu
estereoaren konektorea



**Pizteko/
blokeatzeko
tekla** 

Bolumen-teklak

- Hasierako pantailan: txirrinaren bolumena kontrolatzen dute.
- Telefonoz hitz egiten ari zarela: entzungailuaren bolumena kontrolatzen dute.
- Pista bat erreproduzitzean: bolumena kontrolatzen dute etengabe.



Kargagailuaren konektorea
(Micro USB kablea)



Mikrofonoa

**Kameraren
lentea**

**MicroSD
memoria
txartelaren
arteka**

**SIM
txartelaren
zirrikutua**



Atzeko estalkia

Bateria

Telefonia ezagutzea


SIM txartela eta bateria sartzea

Zure telefono berria arakutzen hasi aurretik, konfiguratu egin behar duzu. SIM txartela eta bateria sartzeko:

- 1** Atzeko estalkia kentzeko, eutsi telefonoari gogor eskuan. Beste eskuarekin, egin presioa erpuruarekin atzeko estalkian, eta altxatu bateriaren estalkia hatz erakuslearekin.



- 2** Mugitu SIM txartela dagokion tokirantz. Ziurtatu txartelaren urre-koloreko kontaktuak behera begira daudela.




- 3 Sartu bateria bere tokian telefonoaren urre-koloreko kontaktuak eta bateriarenak lerrotatuz.



- 4 Ordezkatu telefonoaren atzeko estalkia.



Telefonoa kargatzea

Ireki kargagailuarentzako konektorearen estalkia, LG-P500en albo batean dago. Sartu kargagailuaren kablea, eta entxufatu elektrizitate-hartune batera. LG-P500 erabat kargatu arte utzi behar da;  sinboloa agertuko da orduan.

OHARRA: lehen karga osorik egin behar da, bateriaren balio-bizitza hobetzeko.



OHARRA: lehen karga osorik egin behar da, bateriaren balio-bizitza hobetzeko.

OHARRA: LG-P500ek barne-antena bat du. Kontuz ibili pieza horri kalterik edo arrastorik egin gabe, horrek errendimendua murriztuko bailioke.

Telefonoa ezagutu

Memoria-txartela instalatzea



Multimedia-fitxategiak gordetzeko –telefonoko kamerarekin hartutako irudiak gordetzeko, adibidez–, memoria-txartel bat sartu behar da telefonoan.

Memoria-txartela sartzeko:

OHARRA: LG-P500 telefonoak 32 GB-erainoko memoria-txartelak onartzen ditu.

- 1 Itzali telefonoa memoria-txartela sartu edo atera aurretik. Kendu atzeko estalkia.

- 2 Ireki zirrikituaren babeska, eta sartu memoria-txartela zirrikituan. Egiaztatu urre-koloreko kontaktu-eremua beherantz jarrita dagoela.



3 Itxi zirrikituaren tapa babeslea.



⚠ ADI

Ez ezazu memoria-txartela sartu edo atera telefonoa piztuta dagoenean. Hala eginez gero, kalte egin diezaiokezu memoria-txartelari eta telefonoari; halaber, memoria-txartelean gordeta dauden datuak ere honda daitezke.

Memoria-txartela formateatzea

Baliteke memoria-txartela dagoeneko formateatua egotea. Hala ez bada, formateatu egin beharko duzu erabili ahal izateko.

OHARRA: formateatzean, txartelaren fitxategi guztiak ezabatuko dira.

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones** fitxa aplikazioen menua irekitzeko.
- 2 Mugitu, eta ukitu **Ajustes**.
- 3 Mugitu, eta ukitu **Almacenamiento**.
- 4 Desaktibatu SD txartela.
- 5 Ukitu **Formatear tarjeta SD**, eta, ondoren, egiaztatu egindako aukera.
- 6 Desblokeatze-eredua konfiguratu baduzu, sartu ezazu eta hautatu **Borrar todo**. Txartela formateatu egingo da, eta prest egongo da erabiltzeko.

Telefonoa ezagutzea

OHARRA: memoria-txartelean edukirik badago, karpeten egitura aldatu egingo da formateatzean, fitxategi guztiak ezabatuko baitira.

Iradokizuna

Zure memoria-txartela desaktibatuta badago, urrats hauek egin ditzakezu formateatzeko. Ukitu **Aplicaciones > Ajustes > Almacenamiento > Formatear tarjeta SD.**

Hasierako pantaila

Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak

Hona hemen telefonoaren bidez nabigatzeko iradokizun batzuk.

Ukitua: menu edo aukera bat hautatzeko, edo aplikazio bat irekitzeko, egin ukitu bat.

Luze sakatzea: menu bateko aukerak irekitzeko edo mugitu nahi duzun objektuari heltzeko, ukitu ezazu eta luze sakatu.

Arrastatzea: zerrenda batean gora eta behera poliki mugitzeko, arrastatu hatza ukipen-pantailan zehar.

Mugimendu azkarra: zerrenda batean azkar lerratze edo azkar mugitzeko, egin lerratze-mugimendu azkarra ukipen-pantailan (arrastatze azkarra egin eta askatu).

Oharra

- Elementu bat hautatzeko, ukitu ikonoaren erdialdea.

- Ez sakatu gogorregi. Pantaila sentikorra da, eta ukitu arin eta irmoak detektatzeko gai da.
- Erabili atzamarraren punta nahi duzun aukera ukitzeko. Saiatu beste tekларik ez ukitzen.

Hurbiltasun-sentsorea

Deiak jasotzean eta egitean, sentsore horrek, automatikoki, hondoko argia itzaltzen du, eta ukipen-teklatura blokeatzen du belarriaren ondoan dagoenean objektuak detektatzean. Horrela, bateriak gehiago irauten du eta ukipen-teklatura oker erabiltzea saihesten da deietan teklak automatikoki blokeatuta. Por lo tanto, los usuarios no sufren la molestia de desbloquear el teléfono para buscar en la agenda durante las llamadas.

Hasierako pantaila

Telefonoa blokeatzea

Ez bazara LG-P500 erabiltzen ari, sakatu pizteko tekla, telefonoa blokeatzeko. Horri esker, pantaila ez da istripuz sakatuko, eta bateria aurreztuko du.

Horrez gain, denbora batean ez baduzu telefonoa erabiltzen, blokeo-pantaila agertuko da hasierako pantailaren edo ikusten ari zaren pantailaren orde, bateriaren iraupena luzatzeko.

- Eredua doitzen ari zarenean programaren bat exekutatzen ari bada, baliteke blokeo-moduan jarraitzea. Gomendagarria da blokeo-moduan sartu aurretik programa guztietatik ateratzea, beharrezkoak ez diren kargatzeak egin ez daitezen (esaterako, telefono-deiak, webera sartzeta eta datu-komunikazioak).

Desblokeatze-eredua

konfiguratzea: telefonoa desblokeatzeko eredu propioa marraztu dezakezu, lau puntu edo gehiago konektatuta.

Eredu bat konfiguratzeko baduzu, telefonoaren pantaila blokeatu egingo da. Telefonoa desblokeatzeko, marraztu pantailan konfiguratu duzun eredua.

Kontuz: ezinbestekoa da desblokeatzeko eredu bat konfiguratu aurretik Google-ko kontu bat sortzea.

Kontuz: eredu marraztean 5 akats baino gehiago egiten badira jarraian, ezingo da telefonoa desblokeatu. Kasu horretan, baliteke zure informazio pertsonala eta deskargatutako datuak ezabatzea.

Pantaila desblokeatzea

LG-P500 erabiltzen ari ez bazara, blokeo-pantailara itzuliko da. Arrastatu behatza ezkerretik eskuinera pantaila desblokeatzeko.





Isilik modua

Jakinarazpenen postontzian, ukitu



modura aldatu dadin.

Desblokeatze-eredua erabiltzen ez baduzu, arrastatu  eskuinera.



Pantaila berriro ikusteko, sakatu **menuaren tekla**, **hasteko tekla**, **Atzera tekla** edo **pizteko tekla**.

Blokeo-pantaila agertuko da. Ukitu giltzarrapoaren ikonoa, eta lerratu hatza eskuinerantz hasierako pantaila desblokeatzeko. Irekita zegoen azken pantaila bistaratuko da.

Hasiera

Panelak ikusteko, lerratu hatza ezkererantz edo eskuinerantz.

Widget-ak ere erabil ditzakezu panelak pertsonalizatzeko.

Gogokoen dituzun aplikazioetarako, karpitetarako eta atzeko planoetarako zuzeneko sarbideak dira widget-ak.

OHARRA: pantailako irudi batzuk ezberdinak izan daitezke telefono-hornitzailearen arabera.

LGren hasierako pantailan, beheko aldean agertzen dira laster-teklak. Laster-teklen bidez, eguneroko funtzioetan sar zaitezke ukitu bakarrarekin.





Ukitu **Telefonoaren** ikonoa ukipen bidezko teklatura ireki eta dei bat egiteko.




Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko.

Hasierako pantaila

 Ukutu **Aplicaciones** fitxa pantailaren beheko aldean. Hor ikusiko dituzu instalatuta dauden aplikazio guztiak.

 Ukutu **Mensaje** ikonoa mezuen menura sartzeko. Hemendik, mezu berri bat sor dezakezu.

 Ukutu ikono hau Google-ren webgunea irekitzeko.

Widget-ak gehitzea hasierako pantailari


Hasierako pantaila pertsonaliza dezakezu sarbide zuzenak, widget-ak edo karpetak erantsita. Telefonoa erosoago erabiltzeko, erantsi zure gogoko widget-ak hasierako pantailara.

- 1 Hasierako pantailan, ukutu **menuaren tekla**, eta hautatu **Añadir**. Hasierako pantailako zati hutsa ere sakatu dezakezu luze.
- 2 **Añadir a pantalla de página principal** menuan, ukutu erantsi nahi duzun elementua.

3 Adibidez, hautatu **Carpetas**, eta ukutu aukera hori.

4 Karpeta-ikono berria ikusiko duzu hasierako pantailan. Arrastatu dagokion paneleko nahi duzun lekura, eta kendu hatza pantailatik.

Irardokizuna: aplikazio baten ikonoa hasierako pantailan eransteko, luze sakatu erantsi nahi duzun aplikazioa.

Irardokizuna: Aplikazio baten ikonoa hasierako pantailatik ezabatzeko, luze sakatu ezabatu nahi duzun zuzeneko sarbidea, eta eraman hona: 


Irardokizuna: urrez instalatutako aplikazioak ezin dira ezabatu. (Pantailako ikonoak soilik ezabatu daitezke).

Duela gutxi erabilitako aplikazioetara itzultzea

- 1 Luze sakatu **hasierako** tekla. Azkenak erabilitako aplikazioen ikonoak dituen leihoa agertuko da pantailan.
- 2 Ukitu ireki nahi duzun aplikazioaren ikonoa. Halaber, **Atzera** tekla uki dezakezu uneko aplikaziora itzultzeko.

Iragarlea

Pantailaren goiko aldean luzetara dago iragarlea.




Ukitu eta lerratu iragarlea beherantz. Horrez gain, hasierako pantailan **menuaren** tekla ukitu eta **Notificaciones** hauta dezakezu. WiFia, Bluetooth-aren, GPSaren edo beste jakinarazpen batzuen egoera berrikusi eta administratu dezakezu hemen.

Egoera-barra ikustea

Egoera-barran telefonoaren informazioa bistaritzen duten ikonoak daude. Besteak beste, seinalearen intentsitatea, mezu berririk dagoen ala ez, bateriaren karga-maila eta Bluetooth-a edo datu-konexioak aktibo dauden adierazten dute.

Hasierako pantaila

Beheko taulan agertzen da egoera-barrako ikonoen esanahia.



[Egoera-barra]

Ikonoa	Deskribapena
	Ez dago SIM txartelik
	Ez dago seinalerik
	WiFia aktibatuta eta konektatuta dago
	Kabledun entzungailuak
	Dei-desbideratzea
	Deia zain
	Telefonoa bozgorailuarekin
	Deia isiltzea
	Galdutako deia
	Bluetooth-a aktibatuta
	Bluetooth-a konektatuta
	Sistemaren oharra

Ikonoa	Deskribapena
	Alarma
	Ahots-postontzi berria
	Hegaldiko modua
	Isilik
	Bibratzea
	SD txartela falta da
	Bateria guztiz kargatua
	Bateria kargatzen
	Datuen sarrera
	Datuen irteera
	Datuen sarrera eta irteera
	USBtik PCra
	Deskargatu
	Kargatu
	GPSa datuak jasotzen
	GPSa aktibatuta


Pantailako teklatura

Pantailako teklaturarekin ere idatzi dezakezu testua. Pantailako teklatura automatikoki agertuko da testu bat idatzi behar duzunean. Pantailako teklatura eskuz agerrarazteko, ukitu testua idazteko eremu bat.


Qwerty teklatura (telefonoko teklatura)

 **Letra larrien tekla:**


ukitu behin, idatzi behar duzun hurrengo letra maiuskula izan dadin. Ukitu bitan, dena beti maiuskulaz idazteko.

 **XT9 moduaren tekla:** aktibatu edo desaktibatu XT9 modua.



 **Doikuntza-tekla**

 **Zenbakien eta ikurren tekla:** ukitu tekla hori, zenbaki edo ikur bat idazteko.

 **Intro tekla**


 Pantailako teklatura ezabatze **tekla**.


 **Ezabatu tekla**

  Letren artean aurrera edo atzera egiteko teklak.


Testua idaztea

Teklatura

Ukitu , zenbaki-, ikur- edo testu-teklatura hautatzeko.

Erabili , letra larritik xehera edo xehetik larrira aldatzeko. Koloretako zirkuluak adierazten du letra larrien blokeoa aktibatuta dagoen (berdea), edo karaktere bakarrarentzako dagoen aktibatuta letra larrien funtzioa (laranja).

Zuriunea sartzeko, ukitu .

Iradokizuna: Qwerty teklatura batetik telefono-teklatura aldatzeko, edo alderantziz, ukitu , eta aukeratu Diseños del teclado.

Hasierako pantaila

Abc modua

Idatzi nahi duzun letrari dagokion tekla sakatuta idazten da modu honetan. Tekla behin, bitan, hirutan edo lautan sakatu behar duzu, pantailan nahi duzun letra azaldu arte.

123 modua

Modu honek zenbakiak testu-mezuan azkarrago sartzeko aukera ematen du (adibidez, telefono-zenbaki bat). Ukitu digituei dagozkien teklak, testua idazteko modura eskuz pasatu aurretik.

Letra azentudunak idaztea

Testua idazteko hizkuntza gisa frantsesa edo gaztelania hautatzen baduzu, hizkuntza bakoitzaren karaktere bereziak idatz ditzakezu (adibidez, "á").

Letra desagertzen denean, tekla bera behin baino gehiagotan sakatu, erabili nahi duzun karaktere berezia ikusi arte.


Adibidea

"á" idazteko, luze sakatu "a" tekla. "a..." letra desagertzen denean, eduki hatza pantailaren gainean, eta lerratu ezkerrera edo eskuinera, bila zabiltzan karakterea hautatzeko.

Google-ko kontu bat konfiguratzea

Telefonoan Google-ko aplikazioa lehen aldiz irekitzean, zure Google-ko kontuarekin saioa hasteko eskatuko zaizu. Google-ko konturik ez baduzu, bat sortu nahi duzun galdetuko dizu.

Google-ko kontu bat sortzea

- 1 Hasierako pantailan, ukitu **Aplicaciones**  fitxa, aplikazioen menua irekitzeko.
- 2 Ukitu **Google mail** eta, gero, **Siguiente > Crear**, Google Mail®-ren konfigurazio-laguntzailea abiarazteko.
- 3 Ukitu testu-eremu bat, ukipenezko teklatua irekitzeko. Idatzi zure izena eta Google-ko konturako erabiltzaile-izena. Testua idaztean, hurrengo eremura joan zaitezke, teklatuan **Siguiente** ukituta.
- 4 Izena eta erabiltzaile-izena idazten bukatutakoan, ukitu

Siguiente. Telefonoa Google-n zerbitzariekin komunikatuko da, eta erabiltzaile-izen hori erabil daitekeen egiaztatuko du.

- 5 Sartu pasahitza bitan. Ondoren, jarraitu argibideei, eta sartu kontuari buruz eskatzen den eta aukerakoa den informazioa. Itxaron zerbitzariak kontua sortu arte.

Google-ko kontuarekin saioa hastea

- 1 Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, hautatu **Iniciar sesión**. Itxaron saioa hasi arte.
- 2 Saioa hasi ondoren, Google Mail® erabil dezakezu, eta telefonoak dituen Google-ko zerbitzu guztiez baliatu.
- 3 Telefonoan Google-ko kontua konfiguratuta ondoren, telefonoa sareko Google-ko kontuarekin sinkronizatuko da automatikoki.

Google-ko kontu bat konfiguratzeko

(Ezartzen den sinkronizazio- konfigurazioaren arabera da hori.)

Saioa hasitakoan, Google Mail®, Google Calendar, Android Market® eta Google Map® erabili ditzakezu.

Deskargatu Android Market®-eko aplikazioak, egin zure konfigurazioaren segurtasun-kopia bat Google-ko zerbitzarietan, eta aprobeztatu Google-ren beste zerbitzu batzuk, zure telefonoan erabiltzeko.

GARRANTZITSUA

- Zenbait aplikaziok –hala nola Calendar-ek– gehitzen duzun lehen Google kontuarekin bakarrik funtzionatzen du. Zure telefonoan Google kontu bat baino gehiago erabiltzeko asmoa baduzu, ziurtatu aplikazio horiekin erabili nahi duzun kontua ireki duzula. Saioa hastean, zure kontaktuak, Google mail-eko mezuak, egutegiko gertaerak eta webeko aplikazio eta zerbitzu horien beste zenbait datu zure telefonoarekin sinkronizatuko dira. Konfigurazioa egitean ez baduzu Google-ko kontu

batean saiorik hasten, Google-ko kontu batera sartzeko edo kontu bat sortzeko eskatuko dizu telefonoak, baldin eta kontu bat eskatzen duen (Google mail edo Android Market®) aplikazio batean saioa hasten duzun lehen aldian bada.





- Segurtasun-kopiaren funtzioa erabili nahi baduzu Android 2.0 edo bertsio berriagoa duen telefono bateko doikuntzak telefono honetan ezartzeko, Google-ko zure kontuan saioa hasi behar duzu konfigurazioan.

Konfigurazioa amaitu arte itxaroten baduzu saioa hasteko, doikuntzak ez dira ezarriko.

- Enpresako kontu bat baduzu zure enpresaren edo beste erakunde baten bidez, baliteke zure informatika-sailak argibideak izatea.


Deiak

Deitzea

- 1 Ukitu  teklatura irekitzeko.
- 2 Sartu zenbakia teklaturan. Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu  **ezabatze**-ikonoa.
- 3 Ukitu **deitzeko**  ikonoa, dei bat egiteko.
- 4 Dei bat amaitzeko, hautatu **amaitzeko**  ikonoa.


